




Arbutxu

Gailur galdua



Azparren herria, mendi artean.

Xabier Aranguren

Nafarroako Areta mendilerroan ezkututzen da gailur hau, Artozki, Azparren eta Orotz-Betelu herrien gainean

Xabier Aranguren

Artozkitik Orotz-Betelura errepidetik goazenean, Iñarbeko arroilan, Oiarbeltzeko baso trinkoak arreta deitzen digu. Irati ibaiaren iraganbide, Areta eta Osa mendilerroak elkartzen (edo banatzen) ditu Iñarbek. Osan, Lakarri eta Bizkaxun mendiak nagusitzen dira, eta ibaiaren bestaldean, berriz, gure helburua ezkututzen da: Arbutxu.

Orotz-Betelutik Azparrengo norabidean hiru kilometro egin ondoren, azken herri honetara helduko gara. Azparren, 800 metro eta biztanle gutxi. Bertako *uskara* duela urte gutxi hil zen, adineko aitona-amonekin batera. Artzibarko udalerriaren mugapean, Urraul eta Abaurregaineko ibilbideen atarian, aukera anitz eskaintzen dizkigu herri honek, Arbutxi mendia horien artean.

Azparrengo herrixkari begiradatxo bat eta Ariztuko pista hartuko dugu. Azken etxeak pasatuta, erreka iragango dugu porlanezko zubi batetik. Pistatik jarraitu eta Azparren gure gibelean desagertzen ikusiko dugu, Learpuru mendiaren magalean. Aurreraxeago, Bizkaiko mendi bizkarraren bihurtune batetik, Osa mendilerroko gailurrak ikusiko ditugu: Elke, Pausaran, Jaundonaxakue... bere irudi bitxiakin. Orain, pistak Ladronerreka errekarantz garamatza, eta Oraiko oihanean murgiltzen. Baso zabal hau Aretako mendien mendebaldean kokatzen da, eta Iratiko

aipagarriak

✘ **Non lo egin:** Inork egun batzutarako joan nahiko balu inguru eta mendi hauek ezagutzera Orotz-Betelu eta inguruko herrietan badira toki batzuk lotarako edo ostatu hartzeko. Hona hemen: Orotz-Betelun Jagat etxea (948-764250) eta Ezkerra etxea (948-764235). Olaldean, berriz, Arcelus etxea (943-764287) eta Aroztegi etxea (943-764230).


✘ **Ingurunea:** Irati ibaiaren arroari jarraituz, hasi Irunberriatik eta Abaurregainaraino paisaia ederrak eta askotarikoak aurkituko ditugu: Erdi Aroko itxura erabatekoa duen Uritz herria, Iñarbeko arroila bera, Azparrengo herria Baiguraren magaletan, Aezkoa ibarreko herrixkak, Orbaizeta...

goi bailararen aurrerapen bat da. Irati ibaitik gertu dagoen azken pagadia dugu Oraikoa. Landarediaren eta eguraldiaren eskutik konturatuko gara Nafarroa hezearen eta trantsizioaren arteko aldatetaz.

Pagadiaren barnean ezpelak nagusitzen dira, eta aurrerantzean, lagun izango ditugu gailurreraino. Ixtarriko lepora

heldu baino lehen aterako gara basotik, eta lepoan zelaitu egiten da bidea. Bertan aukera ugari izango ditugu ingurunea pixkatxo bat esploratzeko. Ekialderantz, posible da Larekiko Haitzetara edo Ariztu eta Ekiza herrietara hurbiltzea.

Guk gure bideari eutsiko diogu. Lepotik eskuineko muinorantz abiatuko gara, bide arrasto batzuetatik Ixtarriko mendi



Orotz-Betelu.

kaskora. Beste aldean, zelai lerden batzuk aurkituko ditugu, eta, segidan, Arbutxuko mendiaren bila, pagadian sartuko gara berriz. Ehiztarien txabola bat topatuko dugu. Jarraian, harkaitz batzuk, eta eskuinetik joko dugu, belarditik, eta inguruko mendiak ikusiko ditugu: Korona-Learpuru gailurreria. Beste txabola baten aurriak aurkituko ditugu aurreraxeago.

Laster, pagadi eta ezpelen artean, Arbutxuko buzoia topatuko dugu, Nafarroa Oinez festaren aldi zahar baten ikurrarekin. Buzoiak dienez, Peñas Batxas izenez ezagutzen da mendia. *Baxa* deitzen omen zaie Sarate eta Iñarbe aldera begiratzen duten hegoaldeko maldei.

Mendiak ez du ikuspeirik, ezpelez estalita dago, baina edozein lekutara mugitzen bagara, begiraleku apartak aurkituko ditugu. Gailur altuena zein den zehaztea zaila da, ezpelak direla medio.

Ixtarriko lepora itzuliko gara, eta bertan, aske gara abiapuntura itzultzeko edo ibilbideari norabide ezezagunak zein ezagunak emateko, naturgune zabal honetan.